

Kontsumoa

Kate handien erreinuan alternatiba bila

Hegoaldeko kontsumitzaileak eta Espainiako Estatuko gainontzeko kontsumitzaileak, bost edo sei enpresa handik osatzen duten oligopolioaren eta elikagaiak estatu osoan banatzeaz arduratzen diren bi erosketa-zentralen menpe gaude. Iparraldean ere egoera berdintsua daukagu. Kaltetuak, beti bezala, baserriko eta itsasoko ekoizleak eta kontsumitzaileak dira.

Banaketa kate handiez gain beste aukerarik ba ote dago benetan?

DANIEL UDALAITZ

EKOIZLEEN ETA KONTSUMITZAILEEN arteko zuzeneko salmenta esperimenduak egiten ari dira azkenaldian Euskal Herrian eta Espainiako eta Frantziako estatuetako hainbat lekutan. Modu horretara, bitartekariak eta banaketa kateak saihestu nahi dira. Egia esan, saiakera horiek egiteko zailtasun handiak daude, zuzeneko salmenta antolatzea ez baita lan erraza —merkatu-ratze bideak falta dira, eta ekoizleek beren gain hartu ezin dituzten kostuak eragiten ditu, besteak beste—. Hala ere, esperientzietako batzuk aurrera ateratu dira. Esate baterako, Ziburu eta Donibane Lohizuneko arrantzaleak arraina kontsumitzaileari zuzenean saltzen hasi ziren lehengo urtean. Gipuzkoako zenbait lekutan ere antzeko zerbait egiten ahalegindu dira arrantzaren sektorekoak.

Duela gutxi, esnea zuzenean saltzeko saiakerak egiten hasi dira esnegintzaren sektorean. Azken adibidea Bizkaiko Enkarterrian daukagu: abeltzain batzuek esne botilak ematen dituzten makina automatikoak jarri dituzte zenbait herritan. Abeltzainek eta euskal baserrietako hainbat produktoren ekoizleek zuzeneko salmenta egiten dute urteko zenbait garaitan, ekoizleek kontsumitzaileari zuzenean saltzen diotenaren eta supermerkatu handietan erosten denaren arteko balio desberdintasuna aditzera emateko.

Espainiako Estatuan ere, ekologisten taldeek bultzatuta, hainbat esperientzia egi-

Lidl (argazkian), Eroski, Carrefour (Dia eta Champion ere bereak dira), Alcampo, El Corte Inglés (Opencor ere berea da) eta Mercadona banaketa enpresen esku daude gure erosketak.



ten ari dira, “baserritik etxera zuzenean” bezalako kanpainak aurrera eramanez eta ekoizpen, banaketa eta finantzaketako aukera agroekologikoak erabiliz. Erantzukizuna ekoizle eta kontsumitzaileen artean partekatzea da oinarria. Eguneroko agerrialdi eta erasoak, marketina eta prezio hobeak ikusita, ba al dago, benetan, banaketa kate handiez gain bestelako aukerarik?

Tokian tokiko merkataritzaren aurka

Zer dago banaketa kate handien oligopolitik aldentzeko hasi berri den mugimenduren atzean? Kontua da elikagaiak gure erosketa saskian sartzeko ia ezinbestean bospasei banaketa enpresetara jo behar dugula: Eroski, Carrefour (Dia eta Champion ere bereak dira), Alcampo, El Corte Inglés (Opencor ere berea da), Mercadona eta Lidl. Horiei guztiei erosketen bi zentral nagusiak gehitu behar zaizkie (Euromadi eta IFA), elikagaien banaketa sare propioa baitute horiek ere.

Expo Retail 2006 txostenaren arabera, aipatutako enpresa taldeak Espainiako elikagai banaketaren %75 kontrolatzen du. Estatuan, elikagaien %81,9 supermerkatu, hipermerkatu eta deskontuak egiten dituzten dendetan erosten dira. Beste muturrean daude ohiko dendak eta denda espezializatuak. Lehendabizikoe-tan erosketen %2,7 egiten dira eta bigarrenengoetan %11,2. Aurreneko supermerkatu handiak 1957an ireki zituen atatak. Eta gaur egungo krisialdiaren eraginez enpresa txiki askok itxi behar izan dute, banaketa kate handiek lehia gogorra egiten dietelako. Baina kontu hori ez da oraingo krisiarekin hasi, duela urte batzuk baizik. Esther Vivas katalanak *Supermercados, no gracias* (Supermerkatuak, ez eskerrik asko) liburuan esaten duenez, 1998aren bukaeran

95.000 denda zeuden Espainiako Estatuan. 2004. urtean, aldiz, 25.000 besterik ez. Antzeko egoera daukagu Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintza sektorean ere; hiltzorian dago. Ustiategiak itxi eta itxi ari dira, etengabe. Eta orain, ekonomiaren krisialdiarekin, egoera larriagotzen ari da.

Gainera, faktore garrantzitsu bat azpimarratu behar da: merkataritza gune berrien irekierak lurzorua kudeatzeko ekarri duen modu berria. Isidro Jiménez Ekologistak Martxaneko kidearen arabera, hiri-gintza hazkundearen egungo ereduak azalera handiei pribilegioak ematen dizkie erosteko aukera egokiak eta aisialdi guneak eskaintzen dituztelako eta, horren ondorioz, saltoki txikiak, kontsumitzaileei eta tokiko ekonomiari onurak ekarri arren, mehatxupearik gelditzen dira. Errealitateak gero eta argiago erakusten du azken kontsumitzailearen erosketak elikagai banaketako enpresa handien inguruan biltzen direla.

Nekazari eta arrantzaleek gero eta diru gutxiago jasotzen dute saldutakoagatik, kontsumitzaileek gero eta gehiago ordaintzen dute, eta banatzaile handiak aberastu egiten dira

Jatorrizko prezioa baino %400 garestiago

Horrela, elikagaien banaketa katea azkenean inbutu handi bat izatera iristen da, eta banaketa handia izaten da baserritar, ekoizle eta kontsumitzaileek pasatu beharreko botila lepoa. Monopolio horrek, bistan denez, ondorio larriak eragiten ditu merkataritza katean parte hartzen duten eragileengan. Vivas katalanak esaten duenez, produktu baten jatorrizko prezioaren –banatzaile handiek baserritarrei, ekoizleei edo arrantzaleei ordaintzen dietena– eta azken prezioaren arteko aldea %400ekoa da, eta banatzaile handiak dira irabazi hori poltsikoratzen dutenak. Beraz, ekoizle, nekazari eta arrantzaleek gero eta diru gutxiago jasotzen dute saltzen dituzten produktuengatik, kontsumitzaileek gero eta gehiago ordain-



laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

Eroski, 52.711 langile 2.440 salmenta gunetan

AURTEN 40 URTE BETE DITUEN EROSKI da Espainiako Estatu osoko banaketa kate handienetakoa. Euskal enpresa hau Elorrión (Bizkaia) sortua da. Estatuko industria korporazio garrantzitsuenen artean dagoen eta Euskal Herriko garrantzitsuen den Mondragon taldearen barruan dago. Hain enpresa garrantzitsua izanik, euskal kate honen datu esanguratsuenak plazaratu nahi ditugu hemen, gainontzeko banaketa kate handiak gutxi gorabehera nolakoak diren nolabait irudikatzeko.

2008ko memorian azaltzen diren azken datu ofizialen arabera, Eroskik, Constan Dacostaren zuzendaritzapean, guztira 52.711 langile ditu Espainiako Estatu osoko eta Frantziako zati txiki bateko 2.440 salmenta gunetan banatuta. 2008. urtean egindako salmentekin 9.013 milioi euro gordin (zergak aplikatu aurreko balioa) lortu zituen, aurreko urtean baino %18 gehiago. Konparazio baterako, 2007ko salmenta gordina 7.642 milioi eurokoa izan zen eta 2006koa 6.414 milioi eurokoa. 2009. urtea bukatu den arren, oraindik ez daukagu datu ofizialik, baina lehenengo seihileko datu jakinak ikusita badirudi lehenengo urtekoak baino okerragoak izango direla. Urteko aurreneko seihilekoan 3.712,2 milioi euroko salmentak egin zituen Eroskik, eta % 6,4ko beherakada izan zuen lehenengo urteko garai berarekin alderatuta. Garai hartan 46,15 milioi euro galdu zituen, aurreko urtearekin alderatuta galerak bost aldiz biderkatu zituen, urte hartan 8,47 milioi euro galdu zituen eta. Ustiapen gordinaren emaitza 170,8 milioi eurokoa izan da lehenengo seihilekoan, hau da, lehenengo urtean baino 2,9 milioi gutxiago. Hala ere, bigarren seihilekoko emaitzak hobeak izango direla ematen du.

Enpleguari dagokionez, Eroskik 2004an 30.101 pertsonako plantilla zeukan (langile horietatik 12.298 ziren kooperatibako bazkideak) eta 2008an, berriz, 52.711 pertsona (14.733 ziren bazkideak). Gogoan izan behar dugu Eroskiko plantilla enpresaren kapitalean parte hartzen duten langile bazkideek eta kapital horretan parte hartzen ez duten langile ez bazki-

deek osatzen dutela, eta bazkide izatea edo ez borondatezkoa dela. Eroskiko plantilla Espainiako Estatu osoan zehar barreiatua dago, ia-ia erkidego guztietan dauzka langileak; gutxi batzuek Frantziako Estatuan lan egiten dute, eta beste 1.533k Katalunia iparraldean. Logikoa denez, langile gehienek, 12.371k, Hego Euskal Herrian egiten dute lan; horietatik 8.256 dira bazkideak.

Gainerakoan, Eroskik leku hauetan dauka ezarpen handiena: Katalunian 10.602 langile ditu (388 dira bazkideak), Madrilén 5.680 (507 bazkide), Galizian 4.590 (293 bazkide), Balear Uharteetan 3.642 (2 bazkide), Andaluzian 3.395 (999 bazkide), eta Valentzian 1.298 (572 bazkide). Aragoi, Asturiasen, Gaztela eta Leonen, Kantabrian... ere baditu langileak.



DANI BLANCO



Eusko Jaurlaritzaren egoitza aurrean joan den azaroan EHNEk antolatutako “traktorada”. Lehen sektoreko langileentzako justuagoa den salmenta eta kontsumo eredu aldarrikatzen dute elkarteko nekazari eta abeltzainek.

tzen dute erositakoa eta banatzaile handiak, garaileak, aberastu egiten dira.

Egoera horren aurrean, nekazariak eta abeltzainak banaketa kate handien oligopolioaren aurkako mobilizazioak egiten ari dira azken hilabeteetan, sektoreko sindikatuek eta baserriko langileek diotenez kate handiek inposatzen dituzten jatorrizko prezioekin familiak, ustiategiak eta sektore osoa suntsitzen ari baitira. Euskal Herrian mobilizazioak egiten ari dira, baita Espainiako eta Frantziako estatuetak gainontzeko lekuetan ere. Nekazaritzaren sektorearen Espainiako orain arteko mobilizaziorik handiena joan den azaroaren 22an Madrilen egindakoa izan da; dozenaka mila nekazari eta abeltzain bildu ziren egun hartan. Han egon ziren euskal baserritarrak ere, EHNE sindikatuaren deiari erantzunez. Tankera honetako esaldiak entzun ziren manifestazioan: “Esne litroa 20 zentimo ordaintzen digute”, “porrotera garamatzate”, “nire bizitza suntsitzen ari dira eta inor ez dela

konturatzen ematen du”, “semeari herritik joateko esaten diot, baina ez du nahi”.

Krisia lanpostuak eta ustiategiak desagerarazten ari dela adierazi zuten mobilizazio hartan, eta oso argi eskatu zioten Espainiako Gobernuari estatu arazoetan hartzen diren bezalako premiazko neurriak hartu ditzala. Hain zuzen ere, bankaren eta automobilen sektoreek jaso dituzten laguntzak beraiei ere emateko eskatu zuten.

Hauexek izan ziren, laburbilduz, nekazarien eta abeltzainen eskaerak: bidezko prezioak nekazaritzako produktuentzat eta merkatu erregulazio handiagoa Bruselaren politika suntsitzaileari aurre egiteko; gardentasuna ekoizpen baliabideen prezioetan eta tarifa elektriko berriak baserriarentzat; sektorearen bideragarritasuna 2013tik aurrera ere bermatuko duen nekazaritza politika komuna; eta eskaintza bildu eta kooperatibak bateratzeko plana kooperatibismo eredu sendo eta lehiakorragoa lortzeko.

Gilles Lipovetsky, soziologoa

«Hiperkontsumoa planeta osoan hedatzen hasi besterik ez da egin»



Globalizazioa katalogatu duten soziologoaren artean dago Gilles Lipovetsky (Milhau, Okzitania, 1944). Bere obra nagusia (*L'ère du vide*, 1983) hipermodernitateaz eta kontsumo masaz hitz egiten du eta erreferentziako intelektual bilakatu da munduan gai horren inguruan. *El Temps* aldizkariako kazetariak elkarriketatu zuen AECOC Espainiako

produktore eta banatzaile handien elkarteak Valentzian antolatutako hitzaldi baten ostean, Hilton hotelean:

Zer azaldu zien, zu bezalako gizon batek, enpresari banatzaile handiei?

Erantzuten saiatu nintzen galdera bati: ea oraingo finantza, gizarte eta ekologia krisiak aldatuko duen kontsumoaren paisaia. Aldatuko al da kontsumitzailea krisiarekin? Hiperkontsumo-gizartearen amaiera bizi al dugu? Medio ugari diote krisiarekin jendeak azken urteetan bizi izan dugun kontsumo orgia geldituko duela eta deskontsumo eredu baterantz goazela. Nik ez dut uste. Uste dut aldatetak egongo direla, baina ez dute funtsean eredia aldatuko. Hiperkontsumoa ez da amaituko, planeta osoan hedatzen hasi besterik ez delako egin.

Baina zenbakiak adierazten dute kontsumo erritmoa jaisten ari dela leku guztietan.

Baliteke, baina ez da pentsaera aldaketarik. Lehenik eta behin, kontsumoa ez da ezer sistematik kanpo dagoena.

Kontsumoaren dinamika esplikatu daiteke merkatu-ekonomiaren dinamismoarekin (...) Produktu berriak agertuko dira eta, beraz, horiek erosteko desira. Eta badaude adibideak demostratzeko: krisi betean, bideo-jolasen negozioak %5eko erritmoan egin du gora.

Eta zer interpretazio egiten duzu?

Kontsumoa bizitzeko plazeraren gida da. Jendeak bere izateaz gozatu nahi du. Emozioak probatzera doaz kultura hedonista batean gaudelako (...) Lehengo gizartearen erlijioa zegoen, pertsonen kontsolamendua eskaintzen ziena. Gaur, non aurkitzen dugu kontsolamendua? Kontsumoan. Deprimiturik gaudenean ile-apaindegira joaten gara, edo zinemara, eta bestela DVD bat erosten dugu.

Dena dela, gaur egun jende askok ez du dirurik ez bidaiatzeko, ezta ordenagailu berria erosteko ere.

Ados, baina krisi ekonomikoa da, ez kulturala. Ez badago dirurik, ezin dugu erosi, baina krisiak ez du betirako iraungo...

Baina krisia betikotzen bada urte honetatik harago? Ezin liteke hori baztertu...

Badaude gauzak aldatzen direnak. Kontsumitzaile asko ingurumena kontuan izango dute eta produktu ekologikoak edo jasangarriak erosiko dituzte, edo egongo da jendea markarik ez duena nahi. Baina azken finean horrek ez du kontsumo sukarra gelditzen. Jendeak ez du kontsumitzeko gogoa galdu, ez dagoelako analgesikorik hori ordezkatu dezakeenik.

Ibiliz egiten da bidea

Hain juxtu, banaketa kate handiek eragindako egoera larriaren ondorioz, zenbait merkataritxik, bizirauteko, elkartu eta txokeko neurriak hartu behar izan dituzte. Halaxe egin dute, esate baterako, Bilboko Alde Zaharreko merkataritatzuek. Arrantzale, abeltzain eta nekazari hainbatek aurrera eramandako salmenta zuzenaz ere hitz egin dugu. Bideragarriak al dira banaketa kate handien menpe ez dauden aukerak?

Kontsumitzaile gehienak ziur asko ezkorrak dira eta, etsita, erosketak kate handietan egiten dituzte, produktuak merkeago saltzen dituztelako, erosketak egiteko erraztasun handiagoak ematen dituztelako, produktu guztiak batera egonda erosleek ez dutelako denda batetik bestera ibili behar, eta abar.

Talde ekologistek, ordea, behin eta berriz esaten dute bestelako aukerak badaudela eta horiek susta-

Nahikoa da kontsumitzaileen %1ek edo 2k "horrela ez dut kontsumitu nahi" esatea nekazaritzako elikagaien talde handien hazkundeak atzera egin eta banatzaile handiak kaltetzeko

tu beharra dagoela. Christian Jacquiau ekonomialari frantziarra "supermekadismoan" aditua da, eta *Les coulisses du commerce équitable* (Bidezko merkataritzaren zoko ezkutuak) liburuan dio nahikoa dela kontsumitzaileen %1ek edo %2k "horrela ez dut kontsumitu nahi" esatea nekazaritzako elikagaien talde handien hazkundeak atzera egin eta banatzaile handiak kaltetzeko. Nazioarteko merkataritzan, kontsumo arduratsuan eta bidez-

ko merkataritzan aditua eta Xarxa de Consum Solidari-ko (Kontsumo Solidarioaren Sarea) lehendakaria den Xavier Montagut ekonomialari katalanak, bestalde, uste du erosketak denda txikietan egiten hasiz eta legedia aldatuz elikakatea berriz kontrolatu litekeela. "Administrazioa da hurbileko nekazaritza ekologikoa behar adina ez sustatzearen eta urrutitik datozen produktuei zergarik ez jartzearen erantzulea", dio Montagut. ■